

12. ALDIZKARIA 2011

REVISTA

# Kontsumo

ALDIZKARIA

**Gaia:**

Tarifa gehigarria ezartzea

# Tarifa gehigarria ezartzea

## TARIFA GEHIGARRIA

Oso litekeena da noizbait ikusi izana telebistan gure iritzia emateko mezuak bidaltzera gonbidatzen gaituen programaren bat edo, gure ustez, hobekien lehiatuen pertsonaren aldeko botoa emateko eskatzen diguten programak. Era berean, Interneten nabigatzen ari ginela ikusiko genuen jokoen “demoak”, bideoak, melodien edo abestien deskargak eta abar eskaintzen dizkigutela, eta proposatzen diguten iragarki-bandaren edo estekaren bitartez web-orri horretan sartzera animatzen gaituztela.

Horrek, nahiz eta hasiera batean veste edozer gauza bezain bidezkoa den eskaintza dela maten duen, arazo larriak eragin ditzake. Izan ere, zerbitzu horiek erabili ondoren, jende askok oso faktura handiak jaso izan baititu, ezin izan baitu baja emane do ez baitu zerbitzuaren baldintzaren berri izan. Horrela, ezjakin eta babesik gabe sentitu da.

Hori ez gertatzeko konponbide bakarra zerbitzu horien kontsumo arduratsua eta kontzientea egitea da, eta, horretarako gakoa, besteak beste, tarifa gehigarriko zerbitzuak zer diren, eta nola antolatzen eta funtzionatzen duten jakitea da.

AUKERA ZABALA DEI EDO MEZU BATEN PREZIO HARRIGARRIAN

*Martinek postontziko fakturak hartu ditu. Gasa, argia, telefonoa eta abar....*

*Beti egin ohi duen bezala, fakturak banan-banan begiratu ditu egokiak direla ziurtatzeko. Nolanahi ere, telefonofakturan zerbait deigarria dagoela iruditu zaio. Aurreko hilabeteetan baino askoz gehiago ordaindu behar du!*

*Esertzea eta faktura atalez atal aztertzea erabaki du. Datuak ondo daude, hileko fakturazioaldia, beti bezala... Eta hau? Kontsumoaren laburpenaren barruan, deiak egin diren telefono zenbakiak banakatuta azaltzen diren atalean, hainbat zenbaki azaltzen dira eta horien zenbatekoa gainerako deiena baino askoz ere handiagoa da.*

*Zer gertatu da?, zer esan nahi dute fakturako zenbaki arraro horiek?*



# Tarifa gehigarria ezartzea

Martinek tarifa gehigarriko zerbitzuetara deitu du eta mezuak bidali ditu. Zerbitzu horietara telefono-dei edo SMS edo MMS mezu arrunt baten prezioa baino kostu handiagoa duten telefono-zenbakien bitartez sartzen da; izan ere, deiaz edo mezuaz gain informazio-zerbitzu osagarriak edo jasotzen diren zerbitzuen prezioa ordaintzen da.


Dei eta mezuetatik lortzen den etekina telefonoaren operadorearen eta zerbitzua eskaintzen duen enpresaren artean banatzen da, nahiz eta, erabiltzaile gisa, gure ohiko enpresa operadorearen bitartez soilik ordaintzen dugun.

Bestalde, garrantzitsua da jakitea tarifa gehigarriko zerbitzua erabiltzen denean, edukia edo zerbitzua ematen duenarekin harremanetan jartzen garela, baina horretaz gain tarteko enpresak ere badaudela:

- Abonatua edo erabiltzailea: zerbitzua lortzeko deia egiten duen edo mezua bidaltzen duen pertsona da.
- Sarbidea ematen duen erakunde operadorea: telefono-konexioa (linea) ezarri digun operadorea da, baita zerbitzuak erabiltzaileari (horren linea erabiltzen ari da) fakturatzeko eta kobratzeko. Esate baterako, telefonia-zerbitzua edo Internetarako sarbidea kontratatu diogun eta faktura bizilekura bidaltzen digun telefonoaren enpresa operadorea da.

■ Tarifa gehigarriko sare-zerbitzuaren erakunde operadorea: zenbaki hori esleituta daukan eta zerbitzua ematen duen erakundearen zenbakia eta kontratua kudeatzen dituen erakunde operadorea da, zerbitzua ematen duen erakundeak zerbitzu hori emateko. Adibidez, telekomunikazioen sektoreko enpresa da, tarifa gehigarriko lineak sortzeko eta kudeatzeko ahalmena duena.

■ Zerbitzua ematen duen erakunde: zerbitzuak ematen dituen pertsona fisikoa edo juridikoa, publikoa edo pribatua da. Zerbitzu horiek informazioa emateko, komunikatzeko, denborapasarako eta abarretarako izan daitezke. Esate baterako, zerbitzuaren iragarkia azaltzen den telebistako kanala da.



Erabiltzaileak ordaindu behar duen zenbatekoaren etekinaren ehuneko bat lortzen du erakunde operadore bakoitzak.

# Tarifa gehigarria ezartzea

Nolanahi ere, erabiltzaileok ez diogu agente bakoitzari zatika ordainduko, baizik eta ordaindu beharreko zenbateko osoa azalduko da fakturan, eta faktura hori banakatuta azalduko denez, jakingo dugu zenbat ordaindu den zerbitzu osagarriarengatik eta zenbat telefono zerbitzu arruntarengatik.

*Martinek Interneten sartzea erabaki du, telefono-konpainiari erreklamatu aurretik informazioa bilatzeko, eta ikusi du telefono-zenbaki horiek "tarifa gehigarrikoak" deiturikoak direla. Baina ez du gogoratzen zertarako deitu zuen eta zerbitzu horiek erabili zituenean ez zekien zenbaki horiek dei arruntak baino garestiagoak zirenik...*

Kategoria horretan biltzen diren zenbakiak zein diren jakiteko, hasierako zenbakiari erreparatu behar diegu, eta hainbat motatakoak izan daitezkeela jakin behar dugu:



## Ahotseko zerbitzuak:

**803:** 18 urtetik gorakoek soilik erabil ditzaketenak; zerbitzu erotikoak, pornografikoak edo harreman pertsonaletako zerbitzuak.

**806:** Aisia eta entretenimenduari, jokoei, lehiaketek, zozketek, horoskopoei, tarotarekin eta abarrek zerikusia duten zerbitzuak dira.

**807:** Erakunde publiko eta pribatuei buruzko informazioa ematen duten zerbitzu profesionalak, enpresa-erlotoak eta artistikoak.

**905:** Dei masiboen zerbitzuak. Lehiaketak, telebotoa...

## Datu-sistemaren bitartez emandako zerbitzuak:

**907:** Internet bidezko konexioa.

**907(0), 907(1), 907(2), 907(3) eta 907(4):** zerbitzu profesionalak, aisia-zerbitzuak edo entretenimendu-zerbitzuak.

**907(5), 907(6), 907(7), 907(8) eta 907(9):** helduentzat dira.

907 telefono-zenbakiari dagokionez, aldea da zenbaki horretara Internet bidez sartzen garelako, eta dialer edo markagailuen bitartez (tarifa gehigarriko zenbakiak markatzen duten programak modema erabiliz) "konektatzen" gaitueta nahi dugun zerbitzuarekin.

Horrelako zenbakietarako sarbidea izateko erabiltzaileak berriaz eskatu behar du.

# Tarifa gehigarria ezartzea

## Mezuak

Zenbakiaren hasierako kodearen arabera zerbitzu mota bat edo beste bat eman-go dute eta zenbaki horietan sartzeak prezio desberdina izango du:

Honako zenbaki hauekin hasten bada:	Zerbitzua	Kostua honako hau izan daiteke (BEZik gabe):	Eta luzera hau izango du:
2 5 7 80 9	Ongintzazko kanpainak edo kanpaina solidarioak	Precios $\leq 1,2 \text{ €}$	5 zifra (29ak izan ezik, horrek 6 zifra baititu)
3 5 7 9	Entretanimendurako eta erabilera profesionalak	1,2 € - 6 €	5 zifra (39ak izan ezik, horrek 6 zifra baititu)
79 5 7 9	Harpidetza-zerbitzuak	$\leq 1,2 \text{ €}$	6 zifra (799ak izan ezik, horrek 7 zifra baititu)
99 5 7 9	Soilik helduentzat diren zerbitzuak	$\leq 6 \text{ €}$	6 zifra (999ak izan ezik, horrek 7 zifra baititu)

*Martinek pentsatzen jarraitu du azken hilabeteen zer dei egin zituen eta zer mezu bidali zituen eta horien artetik zein izan ote ziren bereziak gogoratzeko.*

*Bat-batean gogoratu da...eta lagunak atera ez ziren eta bera bakarrik etxean geratu zen larunbatean? Slogan bat etorri zaio burura....*

*("Egin dei bat eta irabazi 5.000 euro. Deitu 905XXXXXX zenbakira)".*

*Eta, jakina, deitu egin zuen!! Erantzuna oso erraza zen eta pentsatu zuen galtzeko gutxi zuela eta irabazteko, berriz, asko... Dena den, orain pentsatzen hasita, denbora luzea eman zuen telefonoan eta ez zuen lortu antenan sartzea...*

Komunikabideek asko erabiltzen dute slogan mota hori ikusleek dei dezaten eta lehiaketan parte har dezaten. Baina oso kontuz ibili behar dugu pantailan nahiz deia hastean ematen diguten informazioarekin.

# Tarifa gehigarria ezartzea

## Deitu aurretik:

Pantailan ematen diguten informazioan jarri behar dugu arreta. Pantailan honako informazio hau azalduko da nahitaez:

- Deiazen prezioa, telefono finkotik nahiz mugikorretik egiten bada.
- Zerbitzua ematen duen erakundearen nortasuna: titulartasuna eta helbidea (erakundearekin harremanetan jartzeko).
- Azkeneko hamar minutuetan jasotako dei kopurua (lehiaketan parte hartze-ko zer aukera dituzun jakiteko).
- Lehiaketaren oinarriak notarioaren edo agintari eskudunaren aurrean jarri beharko dira.

## Deiak irauten duen bitartean:

Deia hasi eta lehenengo zortzi segun-  
doetan, eskuratuko den zerbitzu mota  
zehaztu beharko digu operadoreak, baita  
deitu den telefono-zenbakiaren titula-  
raren nortasuna ere.

Ondorengo 3 segundoetan, erabaki de-  
zakegu deia eten nahi dugun edo aurrera  
jarraitu nahi dugun; azken kasu horretan,  
deia tarifa gehigarri gisa kobratuko digute  
pantailan ezarritako prezioen arabera.



*Baina fakturan beste alderdi deigarri bat ere badago. Zenbateko handiegi bat bidalitako mezu batengatik... Mezu hori "Star Wars" melodia deskargatzeko bidali zuena izango zen. Aitorrek esan zion melodia hori primeran zegoela mugikorrean edukitzeko...*

Telefono mugikorrera bidalitako SMS edo MMS bidez nahiz prentsan, irratian, te-  
lebistan edo Interneten iragarrita, maiz  
samar jasotzen ditugu mota horretako  
mezuak hainbat eduki edo zerbitzu lor-  
tzeko.

Aukera interesgarria da, baina kontsumi-  
tzaileak garen aldetik, zer zerbitzu mota  
eta zer modalitatepean lor ditzakegun  
jakin behar dugu.

# Tarifa gehigarria ezartzea

Zerbitzu horiek honela sailka daitezke:

- Mezu bakar bat bidaliz produktu bat lortzeko zerbitzua (melodiak, iragarriak, bideoak eta abar deskargatzea).
- Ongintzako kanpainetan edo kanpaina solidarioetan, hauteskudeetan eta irratirahiz telebista-lehiaketetan eta antzekoetan parte hartzeko zerbitzua (esaterako: “Eman YYYYren aldeko botoa XXXXX telefono-zenbakira deituta, baldin eta hark irabaztea nahi baduzu...”), eta abar.
- Harpidetza-zerbitzuak. Zerbitzu horien bitartez hainbat mezu jasotzen ditugu gure mugikorrean, bai noizean behin, bai hainbat gertakari jasotzen direnean (“alertak”). Horren adibideak honako hauek izan litezke: trafiko-alertak, kirol-emaitzak, aurreikuspen meteorologikoak, eta abar.
- Txat-zerbitzuak. Erabiltzaileak mezu asko bidaltzen dizkio hartzaile bati edo batzuei saio batean, baina saio hori ezin da 12 orduetik gorakoa izan. Txat batean parte hartzen dutenek talde itxi bat osatzen dute, mezuak bereizita fakturatzen dira, nahiz eta zerbitzu hori harpidetza-zerbitzuen barruan sartuta egon.

*Martinek badaki askotan ez duela pentsatu izan bere ekintzek zer ondorio izan ditzaketen eta soilik bere senari eta unean uneko publizitateari jarraitu diola edo ez duela pentsatu atzean beste interes batzuk egon zitezkeela...*



*Martinek ikasi du tarifa gehigarriko zerbitzuak zenbaki askoren eta modalitate askoren azpian azal daitezkeela eta funtsezkoa dela zer zerbitzu mota eskaintzen diguten jakitea kontratatu aurretik, zer eskubide ditugun jakitea, eta zerbitzu hori erabiltzen dugunean zer konpromiso hartzen ditugun.*

*Neurriz kanpoko fakturaren oroimenak eta mugikorrean duen “Star Wars” melodiak gogoraraziko diote hori guztia etorkizunean....*

11. ALDIZKARIA. 2011

REVISTA

**K**ontsumo

ALDIZKARIA

Zuri gerta dakizuke




# Zuri gerta dakizuke

Azken urteetan, hedatzeko gizarte-sareez baliatzen dira mehatxu informatikoak gero eta ugariagoak dira. Horren haritik, garrantzitsua da horri buruzko informazioa edukitzea, horien erabilera seguru bat egin ahal izateko.

Duela gutxi, Facebook kako gisa erabiltzen duten bi kode gaizto agertu dira.

Alde batetik, Asprox.N dugu, posta elektronikoen bitartez ekipora iristen den troiarra. Erabiltzaileari iruzur egiten saiatzen da, bere Facebookeko kontua spam banatzen ari dela esanez, eta, arrazoi horrengatik eta bere segurtasunerako, bere pasahitzak aldatu egin direla. Word dokumentu faltsu bat eranstu du, eta suposatzen da bertan erabiltzailearen pasahitz berria agertzen dela. Postari erantsitako artxiboak ohikoaren aldean desberdina den word dokumentu baten ikonoa agertzen du Facebook\_details.exe deitua. Artxibo hori, benetan, "harra" da, eta behin exekutatu denean, .doc artxibo bat deskargatzen du, eta horrek testu-prozesadorea exekutatu du, eta erabiltzaileari sinetaraziz postari erantsitako jatorrizko artxiboa benetan ireki dela.

Troiarrak, behin exekutatu denean, beste fitxategi bat deskargatzen du. Horren funtzioa da portu erabilgarri guztiak irekitzea, eta hainbat hornitzailearen posta-zerbitzuetara konektatzea, horrela, albait pertsona kopuru handienari spam bidaltzen saiatzen da.



Bestalde, Lolbot.Q berehalako mezularitzako programen bitartez banatzen da, hala nola MSN edo Yahoo! bidez, eta link gaizto bat biltzen duen mezu bat erakusten du. Lotura horrek "harra" deskargatzen du, eta horren funtzioa da Facebookeko kontua bahitzea eta erabiltzaileari bertan sartzea eragozteko. Gizarte-sarean sartzen saiatzen bada, mezu bat agertzen zaio kontua eten egin dela esateko, eta berriz ere aktibatzeke inkesta bat bete behar duela, eta hainbat gadget irabazteko aukera eskaintzen dio, hala nola iPad bat edo ordenagailu eramangarri bat, bere parte-hartzea sustatzeko.


# Zuri gerta dakizuke

Hainbat galderari erantzun ondoren, sakelako telefono-zenbaki bat eskatzen da. Zenbaki horretan datu-mezuak jasotzen dira, eta as- tean 8,52 euroko gastua suposatzen dute. Izen-emate hori efektiboa egitean, biktimak pasahitz bat jaso beharko luke sakelako tele- fonoan, Facebookeko kontua berreskuratzeko.

Posta elektronikoa da ziber-delitugileen iru- zur egiteko edo birusak banatzeko ahaleginen protagonista nagusia, eta, beraz, oso garran- tzitsua da arrisku horiek saihesteko modua ezagutzea:

- Pasahitza berreskuratzeko mekanismoa modu seguruan konfiguratzea. Bi mekanis- mo daude: kontu alternatiboa eta galdera sekretua.
- Postan bidegabe sartzeak saihestea, pasahitz seguruak erabiliz, batez ere ordenagailu publikoetan, eta ziurtatu prozesuan zehar orrialdearen helbidea "https" moduan has- ten dela.
- HTML mugatzea, horrelako postetan errazagoa delako kode gaiztoak izatea.
- Antispam iragazkia erabiltzea. Iragazki horrek sarrera erretiluan mezu bazter- garriak agertzea saihesten du.
- Kontuz erantsitako fitxategiekin. Bidal- tzailea ezaguna bada ere, posta kutsatua egon daiteke. Exekutatu aurretik, antibirus eguneratu batekin aztertzea gomendatzen da.

- Mezu susmagarriak ezabatzea. Eta susmo txikiena baldin badago, bertan agertzen diren loturei ez jarraitzea.



12. ALDIZKARIA 2011

REVISTA

**K**ontsumo

ALDIZKARIA

Zure eskubidea da

# Zure eskubidea da

Arau askok arautzen dituzte tarifa gehigarriko zerbitzuei esleia dakizkiekeen zenbakiak, baita zerbitzu horiei dagokienez erabiltzaileek dituzten eskubideak ere.

Horretaz gain, Jokabide Kode batzuk daude, telefono bidezko zerbitzuei eta mezu-bidalketan oinarritutako zerbitzuei buruzkoak, eta kode horiek onartu eta bete behar dituzte enpresek zerbitzu horiek emateko. Tarifa gehigarriko Zerbitzuak Gainbegiratzeko Batzordeak kontrolatzen du kode horiek betetzen ote diren, Batzorde horrek kontsumitzaileen eskubideak betetzen direla zaintzen baitu.

## DEIA EGIN AURRETIK

### MEZUAK ETA DEIAK

#### *Publizitate egokirako eskubidea*

Zerbitzuaren titularra den operadoreak egiten duen publizitatea edo iragarkiak, edozein euskarritakoak, erabiltzaileek erraz atzemateko modukoak izango dira; horregatik, tamaina eta kolore egokietako karaktereak izango dituzte.

Zerbitzu horien publizitatean honako hau azalduko da, gutxienez:

- Mezuaren prezioa edo kostua, zergak barne. Era berean, harpidetza-zerbitzuak badira, jasotako mezu bakoitzeko kostua edo egon litekeen aldizkako kuotaarena adierazi beharko luke. Modu estatikoan azalduko da.
- Eskaintzen duten zerbitzu mota.

- Erakunde operadorearen nortasuna, bezeroarentzako arreta-zenbakia, posta arruntaren helbidea eta helbide elektronikoa adierazita.

Zerbitzua adin nagusikoentzat bada, errotulu bat azalduko da eta hor argi eta garbi adieraziko da baldintza hori, eta jende horri bideratutako publizitate guztiak Jokabide Kodeak ezarritako arau espezifikoak errespetatu beharko ditu.

### DEIAK

#### *Lehiaketetan, parte hartzeko edo antenaren sartzeko aukerak zein diren jakiteko eskubidea*

905 zenbaki bidezko telebista-lehiaketen kasuan, pantailaren goialdean, eta ikusteko moduan, azken 10 minutuetan zenbat dei egin diren azalduko da uneoro (datu hori 10 minututik 10 minutura eguneratu behar da).

Horrela, erabiltzaileek balioetsiko dute parte hartuko duten edo ez dei-trafikoaren arabera.

## DEIAK IRAUTEN DUEN BITARTEAN

### MEZUAK

#### *Zerbitzu espezifikoaren informazio-mezu bat edo gehiago jasotzeko eskubidea*

Kodearen arabera, zerbitzua eman aurretik edo ondoren, erabiltzaileak dohainik jaso beharko du mezu bat edo hainbat mezu, zerbitzuaren baldintza orokorren berri ematen diotenak:

# Zure eskubidea da

KODEA	ZERBITZUAREN INFORMAZIOA	NOIZ
2	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Izena eta helbide elektronikoa</li> <li>- Bezeroari arreta emateko telefono-zenbakia</li> <li>- Zerbitzuaren guztizko prezioa, zergak barne</li> </ul>	ZERBITZUA JASO ETA GERO
3 79 99	<ul style="list-style-type: none"> <li>- Izena eta helbide elektronikoa</li> <li>- Bezeroari arreta emateko telefono-zenbakia</li> <li>- Zerbitzuaren nondik norakoa</li> <li>- Zerbitzuaren guztizko prezioa, zergak barne</li> <li>- Zerbitzua berresteko gonbidapena</li> </ul>	HASIERA ETA EGIAZTAPENA

*Harpidetza-zerbitzuei dagokienez, SMS bat jasotzeko eskubidea, parte-hartzea egiaztatzen duena zerbitzuan alta emateko mezua jaso ondoren.*

Harpidetza-zerbitzuak badira (79rekin hasten diren kodeak:

- Zerbitzu horiek "ALTA" hitzaren ondoren gako-hitza jarrita kontratatzen dira.
- Parte-hartzea indargabetzeko, erabiltzaileak "BAJA" hitza bidali behar du ondoren dagokion gako-hitza jarrita.

Zerbitzuak egiaztatu behar duen gonbidapena baldin badago, erabiltzaileak ez badu erantzuten, eskatutako zerbitzuari uko egiten diola esan nahiko du.

Eskabidea jaso ondoren, zerbitzu-emeleak mezu bat bidali behar dio erabiltzaileari baja izapidetu dela egiaztatzeko eta erabiltzaileak ez du harpidetza aipatuko duen mezu gehiago jasoko.

Erabiltzaileei ezin zaie eskatu tarifa gehigarriaren eraginpeko ondoz ondoko bi mezu edo gehiago bidal ditzatela zerbitzu jakin bat eskatzeko.

## DEIAK

*Lokuzioaren hasieran dei horri buruzko datu guztien berri izateko eskubidea*

Egiten den dei bakoitzean, honako hau adierazi beharko da, gehienez 15 segundoko hasierako informazio-lokuzioaren bitartez (8 segundo 905 zenbakietan) :

- Erabiltzailea sartzan ari den tarifa gehigarriko zerbitzua.
- Deitzen ari garen zenbakiaren titularren nortasuna: Izen-abizenak edo enpresaren izena, eta helbidea.
- Zerbitzua 18 urtetik gorakoentzat ote den.
- Deiak minutuko izango duen gehieneko prezioa, zergak barne, deia gailu mugikor edo finko batetik egiten den bereiziz.

# Zure eskubidea da

KODEA		ZERBITZUAREN GEHIENENKO PREZIOA
803 (X)	X: 0tik 9ra	X zenbat eta handiago izan, orduan eta handiagoa izango da kostua.
806 (X)	X: 0tik 9ra	
807 (X)	X: 0tik 9ra	
905(X)	X: 1	0,30 (sare finkoa); 0,75 (mugikorra)
	X: 2	0,60 (sare finkoa); 1,05 (mugikorra)
	X: 3	1,20 (sare finkoa); 1,65 (mugikorra)
	X: 4	1,20 (sare finkoa); 1,65 (mugikorra)

Teleboto-zerbitzuen kasuan, (905 (1), 905 (7) eta 905 (8) zenbakiak) honako hau adierazi beharko da lokuzioan:

- Zerbitzu-emailearen izena.
- Botoa zenbatu dela egiaztatzea, hala badagokio.
- Jasotako zerbitzuaren guztizko prezioa, zergak barne.



KODEA		ZERBITZUAREN GEHIENENKO PREZIOA
905(X)	X: 1	0,30 (sare finkoa); 0,75 (mugikorra)
	X: 7	0,60 (sare finkoa); 1,05 (mugikorra)
	X: 8	1,20 (sare finkoa); 1,65 (mugikorra)

# Zure eskubidea da

## *Deia ez onartzeko eskubidea*

Dei horri dagozkion datuen berri eman ondoren, erabiltzaileak 5 segundo (3 segundo 905 zenbakientzat) izango ditu deiarekin aurrera jarraituko duen edo bertan behera utziko duen erabakitze-ko, denbora tarifa gehigarriko dei gisa zenbatzen hasi baino lehen.

## *Deiak dei mota horretarako ezarritako denbora ez gainditzeko eskubidea*

Tarifa gehigarriko zerbitzuetara egiten diren deiek ez dute 30 minutu baino gehiago iraungo, haurrentzat eta gazte-entzat direnak nahiz lehiaketetan parte hartzeko direnak izan ezik; kasu horretan 8 minutukoak eta 5 minutukoak izango baitira, hurrenez hurren.

Denbora hori igaro ondoren, zerbitzu-emaileak berak etengo du deia.

## DEIA EGIN ONDOREN

## MEZUAK ETA DEIAK

### *Faktura xehatua jasotzeko eskubidea*

Erakunde operadoreek fakturak banakata bidali behar dituzte, eta zerbitzuan alta emateko mezuari nahiz tarifa gehigarriko zerbitzuaren kostuari dagokion

kostua zehaztu beharko dute. Erakunde operadoreari behar adinako aurrerape-  
nez eskatzen bazaio, tarifa gehigarriko  
zerbitzuen kasuan faktura independen-  
tea ere eman ahal izango digute.

Erabiltzailea ados ez badago fakturaren  
tarifa gehigarriko zerbitzuen zenbate-  
koarekin, uko egin diezaioke tarifa ge-  
higarriko zerbitzu horri dagokion zatia  
ordaintzeari, eta horrek ez du ekarriko  
telefono-zerbitzua etetea. Nolanahi ere,  
linea ezartzeari dagokion zatia ordain-  
duko da, baita egindako gainerako deiak  
edo fakturan xedatutako bonoak eta zer-  
bitzuak ere.

Zerbitzu mota hori erabiltzen duten per-  
tsonen kasuan, urtean bi aldiz gutxienez,  
jakinaraziko zaie deskonektatzeko eska  
diezaioketela erakunde operadoreari.

### *Deskonektatzeko eskubidea*

Erabiltzaileak guztiz dohainik eska die-  
zaioke erakunde operadoreari deskonek-  
tatzeko, zerbitzu mota horietan sartzeko  
aukerarik ez izateko. Eskaera hori idazki  
bidez egin behar da. Eskubide hori 10  
eguneko epean gauzatuko da eskubidea  
jasotzen denetik zenbatzen hasita.

# Zure eskubidea da

## INTERNET BIDEZ ESKAINTZEN DIREN ZERBITZUAK (907rekin hasten diren zenbakiak)

*Informazio egokia jasotzeko eskubidea hasierako pantailan*

Informazio egokia jasotzeko eskubidea hasierako pantailan:



KODEA		ZERBITZUAREN GEHIENENKO PREZIOA
905(X)	X: 1	0,30 (sare finkoa); 0,75 (mugikorra)
	X: 7	0,60 (sare finkoa); 1,05 (mugikorra)
	X: 8	1,20 (sare finkoa); 1,65 (mugikorra)

- Zerbitzuaren minutu bakoitzeko gehieneko prezioa.
- Tarifa gehigarriko edukietan sartzeko erabilitako telefono-zenbakia
- Tarifa gehigarriko zerbitzua ematen duen erakundearen izena eta IFZ eta, hala badagokio, izen soziala eta IFK.
- Komunikazioa amaitzeko eta Interneteko konexiorako sarbide arrunta berretartzeko prozedura

*Zerbitzu horietan sartzen ari garela jakinarazten edo eragozten duten doako programak izateko eskubidea*

Datu-sistemen bitartez ematen diren zerbitzuek web-orri bat eskainiko diete erabiltzaileei eta web-orri horretan eskatu ez diren programa markatzaileetarako (dialer) sarbidearen berri ematen duen edo sarbidea eragozten duen, erabiltzaileak eskatu duenaren arabera, informatika-programa bat dohainik deskargatu ahal izango dute erabiltzaileek.



# Zure eskubidea da


*Datuen berri emateak zerbitzu mota horretarako ezarritako denbora ez gainditzeko eskubidea*

Tarifa gehigarriko zerbitzuetarako konexioak ez du 30 minutu baino gehiago iraungo, haurrentzat eta gazteentzat direnak nahiz lehiaketetan parte hartzeko direnak izan ezik; kasu horretan 8 minutukoak eta 5 minutukoak izango baitira, hurrenez hurren.

Denbora hori igaro ondoren, zerbitzu-emaitzak berak etengo du deia.

*Zerbitzu horietara konektatu nahi ote dugun esanbidez galdetuak izateko eskubidea*

Nahi duten abonatuak dagokien operadoreari eskatu beharko diote aurretik eta idazki bidez, 907 kodea duten zerbitzu horietarako sarbidea, "opt-in" sistema deiturikoa.



*907 KODEAK ERABILTZEKO BESTE AHOLKU BATZUK...*

*Markatzaileak (dialer) antzemateko programa bat izatea*

Programa horiek modem batetik egiten diren Interneterako konexioak kontrolatzen dituztenez, tarifa gehigarriko zenbakien markaketa eteteko erabil ditzakegu.

*Nabigatzailearen mezuak kontuan hartzea eta orri nahiz artxibategi ezezagunak ez irekitzea ezta exekutatzea ere*

Normalean tarifa gehigarriko zerbitzu bidez eskaintzen den zerbitzu baten aurrean gaudenean, ez dugu fidatu beharko zerbitzua dohainik ematen dela iragarritzen duen publizitateaz.

Orri edo artxibategi ezezagunen aurrean, arreta berezia jarri behar da; izan ere, orri edo artxibo horiek egikaritzen edo irekitzen badira, konexioa tarifa gehigarrietara bidera daiteke erabiltzailea konturatu gabe.

Nolanahi ere, komeni da noizean behin egiaztatzea konexioak egiten ari garen zenbakia ohiko sarbidea dela benetan.